

AUTOEBALUAZIOA**IV MODULUA: SENDAGAIEN ADMINISTRAZIO OFTALMIKOA**

1. Hesi hemato-okularra:

- a) Konposatu hidrofiloiei iragazkorra da
- b) Pisu molekular altuko farmako lipodisolbagarriei iragazkorra da
- c) Pisu molekular baxuko konposatu lipodisolbagarriei iragazkorra da
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

2. Kornea:

- a) Begietatik administratutako farmakoek zeharkatu beharreko hesi nagusia da
- b) Bere egitura dela eta bere barnean ezin dira sendagaiak metatu
- c) Proteina garraiatzaile kopuru altua dauka
- d) Kornearen lubrikazioak ez dauka inolako eraginik farmakoen iragaitean

3. Kolirioak

- a) Bakarrik disoluzio moduko formulazioak aurki ditzakegu
- b) Tantaren tamaina handiagoa denean handiagoa izango da barneratzen den farmako kantitatea
- c) Iraupen luzeko eragina dute
- d) Tanta bat baino gehiago administratu behar denean administrazioen artean gutxienez bost minutu itxaron behar dira

4. Begietan administratzeko diren formulazioen pHa:

- a) pHak farmako portzentaje gehiena modu ez ionizatuan egotea bermatu behar du
- b) Begiak formulazioaren pHa onartu behar du, onargarriak dituen balioak 6,5 eta 7 artean daudelarik
- c) Kolirio aurre-indargetzaileak erabiliz kontrolatu daiteke
- d) Farmakoen disposizioan eragin handia ez duen betekizun teknologikoa da

5. Zein da begi-bidezko formulazioetan lodigarriak erabiltzearen arrazoia?

- a) Formulazioaren ukipen-denbora luzatzea
- b) Osagai aktiboaren egonkortasuna handitzea
- c) Malko- jarioa gutxitzea
- d) Tolerantzia handitzea